**Zk-2351**

73/2001 DEKRETUA, apirilaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan musikako goi mailako ikasketak ezartzen dituena, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko Legearen arabera.

Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko Legeak 39. artikuluan ezarritakoaren arabera, musika-ikasketa arautuak hiru mailatan antolatzen dira: oinarrizko maila, erdiko maila eta goi maila. Apirilaren 21eko 617/1995 Errege Dekretuak goi mailako musika-ikasketen kurrikulumaren oinarriak ezarri zituenak eta espezialitate bakoitzeko materia bereziak gutxienezko komunen aldetik definitu zituenak, aldi berean, goi mailako musika-ikasketen kurrikulumaren oinarriak ere zehazten ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken urteotan, oinarrizko eta erdi mailako ikasketak normalizatu dira, eta, horiek ezarri ahala irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuak arautzen zuen ikasketa-plan zaharra ordezkatu da. Goi mailako ikasketak ezarriz araututako musika-ikasketen eskaintza osatu da. Horrela, musikako goi mailako titulua lortzeko bide ematen da, eta titulu horrek unibertsitate-lizentziatuaren balio bera izango du ondorio guztietarako.

Ikuspegi zabalago batetik, hau da, hezkuntza-sistemaren errentagarritasun-irizpidetik, musika-ikasketetan goi maila ezartzeak bide emango du kalitatezko prestakuntza artistikoa eskaintzeko eta geroko musika-profesionalen kualifikazioa bermatzeko; izan ere, horiek izango baitira irakasle-plantilen eta EAEko orkestra sinfonikoen plantilen oinarria, bai eta geure autonomia-erkidegoan sor daitezkeen mota askotako taldeen oinarria ere, esaterako, abesbatza, ganbera-talde eta bakarlari ospetsuak. Bestetik ere, goi maila ezartzeak EAEren egungo zernolakoek eskatzen dituzten lanpostuak betetzea bermatuko du. Zeresanik ez, EAEn gero eta gehiago dira aisiarekin eta kulturarekin lotutako ekintzak. Horiek horrela, bidezkoa izango da luzaroan finkatu den tradizioari jarraitzea eta hori bultzatzea, alegia, musika-irakaskuntzari tratamendu berezia eman diona eta orokorrean musikarekiko interes eta musika-kontsumo handiarekin bat datorrena.

Bestalde, eta Musikako Goi Mailaren berezko curriculuma egiten den bitartean, eta Eusko Jaurlaritzak curriculum hori onartu arte, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak ezarritakoa aplikatuko da behin-behingoz lurralde-esparru horretan.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoari entzunaldia eman eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko apirilaren 24an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**N°-2351**

DECRETO 73/2001, de 24 de abril, de implantación en la Comunidad Autónoma del País Vasco de los estudios superiores de Música de acuerdo con la Ley de Ordenación General del Sistema Educativo.

La Ley de Ordenación General del Sistema Educativo establece, en su artículo 39, la organización de las enseñanzas de música de carácter reglado en tres niveles: Grado Elemental, Grado Medio y Grado Superior. El Real Decreto 617/1995, de 21 de abril, por el que se determinan los aspectos básicos del curriculum para el Grado Superior de las Enseñanzas Musicales definen las materias específicas de cada especialidad en su faceta de mínimos comunes, determina a su vez los aspectos básicos del currículo para el grado superior de las enseñanzas musicales.

En la CAPV se han normalizado en los últimos años los estudios de Grado Elemental y Grado Medio, cuya implantación progresiva se ha correspondido con la extinción también progresiva del antiguo Plan de estudios regulado por el Decreto 2618/1966, de 10 de septiembre. Con la implantación de los estudios superiores se completa la oferta de los estudios musicales reglados, posibilitando de esta manera la consecución del título superior de Música, equivalente a todos los efectos al de Licenciado Universitario.

Desde una perspectiva más amplia, es decir, desde el criterio de rentabilidad social del sistema educativo, la implantación del grado superior en la enseñanza musical posibilitará además ofrecer una formación artística de calidad y garantizar la cualificación de los futuros profesionales de la música que deberán constituir la base de las plantillas docentes, de las plantillas de las orquestas sinfónicas de la CAPV, así como de los numerosos conjuntos de todo tipo, coros, agrupaciones camerísticas, y solistas de renombre que potencialmente se dan en nuestra comunidad autónoma. Su implantación permitirá, por otra parte, asegurar la cobertura de los nuevos puestos de trabajo que demanda el actual perfil de la CAPV como una comunidad cada vez más dedicada a actividades relacionadas con el ocio y la cultura, permitiendo a su vez continuar y potenciar una tradición largamente asentada que ha dado a la enseñanza musical un tratamiento especial, acorde con ele elevado interés por la música en general, y con el alto nivel de consumo musical existente en la población.

De otra parte y estando en proceso de elaboración el currículo propio del Grado Superior de Música y hasta que éste sea aprobado por el Gobierno Vasco, será de aplicación provisional el establecido por el Ministerio de Educación y Cultura para su ámbito territorial.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, oída la Comisión Jurídica Asesora, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de abril de 2001,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* 2001-2002 ikasturtetik aurrera EAEn Goi Mailako Musika-Ikasketak ezartzen hasiko da pixkanaka, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko Legearekin bat etorriz.

*2. artikulua.–* Goi Mailako Musika-Ikasketen iraupena lau urtekoa izango da. Dena den, Zuzendaritza eta Konposizio espezialitateak lau edo bost ikasturtetan egin ahal izango dira, aukeran.

*3. artikulua.–* Musikako Goi Maila osatzen duten espezialitateak apirilaren 21eko 617/1995 Errege-Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoak dira.

Geroan modalitate gehiago sartu ahal izango diren arren, 2001/2002 ikasturtean ezarri beharrekoak honako hauek izango dira:

a) Musika klasiko eta garaikideko instrumentuak: eskusoinua, harpa, kantua, klarinetea, klabea, kontrabaxua, fagota, zeharkako xirula, gitarra, oboea, organoa, perkutsioa, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba, biola, biolina eta biolontxeloa.

b) Tradizioko eta herri-musikako instrumentuak.

c) Konposizioa.

d) Pedagogia.

e) Zuzendaritza: abesbatza eta orkestra.

*4. artikulua.–* Urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko Legearen 42.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, musikako ikasketen goi maila gainditu dutenek dagokien Goi Mailako titulua jasotzeko eskubidea izango dute. Titulu horrek unibertsitate-lizentziatuaren tituluaren balio bera izango du ondorio guztietarako.

*5. artikulua.–* Apirilaren 21eko 617/1995 Errege-Dekretua betez, honako hauek izango dute musika-ikasketen goi mailara sartzeko aukerak: batxilergo-titulua daukatenek eta erdi mailako hirugarren zikloari dagozkion ikasketak gaindituta dituztenek, baldin eta sartzeko proba berezia gainditzen badute. Proba berezi horrek helburu izango du hautagaiak eskatutako espezialitatea probetxuz ikasteko ezaguerak eta trebezia profesionalak dituen egiaztatzea.

Bestetik, honako hauek ere izango dute goi mailan sartzeko aukera: aurreko atalean aipatutako baldintza akademikoetako bat edo biak bete ez arren, ezarritako proba gainditzen dutenek, baldin eta ariketa berezi baten bitartez erakusten badute erdi mailari dagozkion ezaguerak eta eskatu duten espezialitatea probetxuz ikasteko behar beste ezaguera eta gaitasun dituztela.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* A partir del año académico 2001-2002 se iniciará en la CAPV la implantación progresiva de los Estudios Superiores de Música de acuerdo con la Ley de Ordenación General del Sistema Educativo.

*Artículo 2.–* Los estudios de Grado Superior de Música tendrán una duración de cuatro cursos, excepto en las especialidades de Dirección y Composición que podrán cursarse indistintamente en cuatro o en cinco cursos.

*Artículo 3.–* Las especialidades que configuran el grado superior de música son las que se especifican en el artículo 3 del Real Decreto 617/1995, de 21 de abril.

Sin perjuicio de ampliaciones futuras las modalidades a implantar para el curso 2001/2002 serán las siguientes:

a) Instrumentos de música clásica y contemporánea: Acordeón, Arpa, Canto, Clarinete, Clave, Contrabajo, Fagot, Flauta travesera, Guitarra, Oboe, Organo, Percusión, Piano, Saxofón, Trombón, Trompa, Trompeta, Tuba, Viola, Violín y Violoncello.

b) Instrumentos de música tradicional y popular.

c) Composición.

d) Pedagogía.

e) Dirección: Coro y Orquesta.

*Artículo 4.–* De acuerdo con lo establecido en el artículo 42.3 de la Ley de Ordenación General del Sistema Educativo, de 3 de octubre, quienes hayan superado el grado superior de las enseñanzas de música tendrán derecho al Título Superior en la especialidad correspondiente, que será equivalente, a todos los efectos al título de Licenciado Universitario.

*Artículo 5.–* En cumplimiento del Real Decreto 617/1995, de 21 de abril, podrá acceder al grado superior de las enseñanzas de música quienes, reuniendo los requisitos académicos de estar en posesión del título de Bachiller y de haber aprobado los estudios correspondientes al tercer ciclo de grado medio, superen la prueba específica de acceso, que permita comprobar que el aspirante posee los conocimientos ya habilidades profesionales necesarios para cursar con provecho la especialidad solicitada.

Asimismo podrán acceder al grado superior de las enseñanzas de música quienes, sin reunir uno o los dos requisitos académicos a que se refiere el apartado anterior, superen la prueba establecida y además demuestren a través del ejercicio específico correspondiente, poseer tanto los conocimientos y aptitudes propios del grado medio como las habilidades específicas necesarias para cursar con aprovechamiento la especialidad solicitada.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Euskal Autonomia Erkidegoan Musikako Goi Mailaren curriculuma ezarri arte, Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1999ko ekainaren 25eko Agindua aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena.–* Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretuaren 33. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz, (uztailaren 1eko 1487/1994 Errege Dekretuak eraberrituta, alegia, ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretua eraberritu eta osatzen duena), aurreko ikasketa-planeko gradu guztiak ahitu eta hurrengo bi urteetan Oinarrizko Diploma eta Irakasle Titulua eta Goi Mailako Irakasle Titulua lortzeko proba berezietarako deialdiak egingo dira espezialitate guztietan, bere garaian ezarriko diren baldintzetan, irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuak araututako ikasketaplanak ahitzeak eragindako ikasleentzat.

*Bigarrena.–* Erdi mailako ikasketekin jarraitzeko aukera indarrean egongo da 2000/2001 ikasturtea amaitu arte.

*Hirugarrena.–* Goi mailako ikasketekin jarraitzeko aukera 2001/2002 ikasturtea amaitu arte egongo da indarrean, espezialitate hauek izan ezik: orkestra-zuzendaritza, abesbatza-zuzendaritza, musikologia, musika sakroa eta musika-pedagogia. Kasu hauetan 2002-2003 ikasturtea amaitu arte egongo dira indarrean.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari dekretu hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko apirilaren 24an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Hasta que se establezca el currículo del Grado Superior de Música en la Comunidad Autónoma del País Vasco, será de aplicación la Orden del 25 de junio de 1999 del Ministerio de Educación y Cultura referida a dicha materia.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 33 del Real Decreto 986/1991, de 14 de junio, por el que se establece el calendario de aplicación de la nueva ordenación del sistema educativo, modificado por Real Decreto 1487/1994, de 1 de julio por el que se modifica y completa el Real Decreto 986/1991 de 14 de junio por el que aprueba el Calendario de aplicación de la nueva ordenación del sistema educativo, en los dos años siguientes a las fechas de extinción de los distintos grados del anterior plan de estudios, se convocarán pruebas extraordinarias para la obtención del Diploma Elemental y los Títulos de Profesor y Profesor Superior de las diferentes especialidades, en las condiciones que oportunamente se establezcan, para aquellos alumnos afectados por la extinción de los planes de estudio regulados por el Decreto 2618/1966, de 10 de septiembre.

*Segunda.–* La posibilidad de continuar estudios de Grado Medio será efectiva hasta el final del curso académico 2000/2001.

*Tercera.–* La posibilidad de continuar estudios de Grado Superior será efectiva hasta el final del curso académico 2001-2002, excepto en el caso de las especialidades de Dirección de Orquesta, Dirección de Coro, Musicología, Música Sacra y Pedagogía Musical que se prolongan hasta el final del 2002-2003.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación a dictar cuantas disposiciones sean precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de abril de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.